
UDAL TASAK ORDAINTZEKO LAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUTEN ARAUAK

1. Artikulua.

Onura fiskalaren subjektua den unitate ekonomikoa izango da: eskatzailea zein familia gunetan izan, huraxe izango da.

Pertsona baten familia gunea zehazteko, kontuan hartuko dira Biztanleen Udal Erroldako datuak, eta gutxienez 5 urtean izango du bizilekua hemen eta hango kide guztien izenak jaso behar dira eskabide orrian eta dirulaguntza eman edo eman ez izanaren jakinarazpenean.

2. Artikulua.

Dirulaguntza emango da, hala badagokio, eskabidea egin eta gero, Udalari zuzendutako idatzi baten bidez.

3. Artikulua.

Langabezia egoeran izan daitekeen iragankortasuna dela bide, eta erroldak egitean eta horiek zenbatean zailtasunik izan ez dadin, araudi honetan arautzen diren Tasak ordaintzeko modua izango da laguntza.

Horri buruz, dirulaguntza ordaintzeko, hauek aurkeztu beharko dira, NA, dirulaguntza ematearen udal akordioa eta diruz lagundu behar diren tasak ordaindu izanaren egiaztagiria.

4. Artikulua.

Diruz laguntzeko eskubidea emango duten dirusarreraren mailak muga hauetan jarri dira:

1.- Pertsona batek osatutako familia gunea:

- | | |
|---|------------------------|
| - Familiaren dirusarreraren LGS baino txikiagoa | - dirulaguntzaren %100 |
| - Familiaren dirusarreraren LGS eta LGSren %112,5 artekoa | - dirulaguntzaren %80 |
| - Familiaren dirusarreraren LGSren %112,5 eta LGSren %125 artekoa | - dirulaguntzaren %60 |
| - Familiaren dirusarreraren LGSren %125 eta LGSren %137,5 artekoa | - dirulaguntzaren %40 |
| - Familiaren dirusarreraren LGSren %137,5 eta LGSren %150 artekoa | - dirulaguntzaren %20 |

2.- Pertsona 2k edo 3k osatutako familia gunea:

- | | |
|---|------------------------|
| - Familiaren dirusarreraren LGSren %112,5 baino txikiagoa | - dirulaguntzaren %100 |
| - Familiaren dirusarreraren LGSren %112,5 eta LGSren %125 artekoa | - dirulaguntzaren %80 |

- Familiaren dirusarrera LGSren %125 eta LGSren %137,5 artekoa - dirulaguntzaren %60
- Familiaren dirusarrera LGSren %137,5 eta LGSren %150 artekoa - dirulaguntzaren %40
- Familiaren dirusarrera LGSren %150 eta LGSren %162,5 artekoa - dirulaguntzaren %20

3.- Pertsona 4k edo 5ek osatutako familia guinea:

- Familiaren dirusarrera LGSren %125 baino txikiagoa - dirulaguntzaren %100
- Familiaren dirusarrera LGSren %125 eta LGSren %137,5 artekoa - dirulaguntzaren %80
- Familiaren dirusarrera LGSren %137,5 eta LGSren %150 artekoa - dirulaguntzaren %60
- Familiaren dirusarrera LGSren %150 eta LGSren %162,5 artekoa - dirulaguntzaren %40
- Familiaren dirusarrera LGSren %162,6 eta LGSren %175 artekoa - dirulaguntzaren %20

4.- Pertsona 6k edo gehiagok osatutako familia guinea:

- Familiaren dirusarrera LGSren %137,5 baino txikiagoa - dirulaguntzaren %100
- Familiaren dirusarrera LGSren %137,5 eta LGSren %150 artekoa - dirulaguntzaren %80
- Familiaren dirusarrera LGSren %150 eta LGSren %162,5 artekoa - dirulaguntzaren %60
- Familiaren dirusarrera LGSren %162,6 eta LGSren %175 artekoa - dirulaguntzaren %40
- Familiaren dirusarrera LGSren %175 eta LGSren %187,5 artekoa - dirulaguntzaren %20

5.- Familiako dirusarrerak zenbatzeko, hileko dirusarrera gordinak hartuko dira kontuan, zergak kendu barik eta aparteko soldatak prorrateaturik, familia unitateko kide guzti-guztienak.

5. Artikulua.

Eskatzaileak agiri hauek aurkeztu behar ditu:

- Eskatzailearen NAren fotokopia.
- Dirusarreraren ziurtagiria, soldatena Enpresak eginda, langabezia subsidioarena Enplegu Bulegoak eginda, erretiro pentsioarena GSINek, dagokionaren arabera.
- Familia unitateko kideen langabezia txartelaren edo ikasketa ziurtagiriaren fotokopia.
- Pertsona Fisikoen errentaren gaineko zergaren azken adierazpenaren kopia.

- Eskatzailearen adierazpena; langabeziaren subsidioa edo jubilazio pentsioa ez den beste dirusarrera iturri batzuk dituela edo ez dituela adieraziko du, eta zenbatekoa diren ere bai.
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren ziurtagiria, azken bost urteetan izandako kotizazioei buruzkoa, hala behar den kasuetan.
- Bizileku eta Bizikidetzako ziurtagiria.

6. Artikulua.

Eskatzailearen ohiko bizilekua ez den beste ondasun higiezinak izanez gero, eta lanbide arteko gutxieneko soldata 12,5 bider handiagoko saldoez, aurrezki libreak, kontu korronteak, eperako orriak izanez gero, dirulaguntza ordaintzeko eskubidea galduko da.

Ondorio horretarako, laguntza eman aurretik, familia unitateko kide guztien eta bakoitzaren izenean agertzen den ondarea egiaztatuko da dagokion udal zerbitzuan.

7. Artikulua.

Hauen tasak arautu dira:

- Obra lizentzia (norbere etxebizitzan) beharrezko diren obren edo konponketen kasuan).
- Etxeko ur hornidura, gehienez ere 30m³-ko kontsumo arte.
- Etxeko zabor bilketa.

8. Artikulua.

Urtero diruz laguntzeko eskubidea duten zergadunen errolda egingo da, eta jende aurrean erakutsiko da eta gero Gobernu Batzordeak onartuko du; horretarako, urtarril eta otsailen eskabideak berrituko dira eta dokumentazio egokia aurkeztuko dute.

9. Artikulua.

Onura fiskal izateko eskubidea duten zergadunen erroldan daudenak beharturik daude adierazten Udalari haien familia gunearen kideen lan egoeran izandako aldaketaren bat, edo horien dirusarrera ekonomikoetan daudenean, aldaketa horiek izaten diren unean.

Obligazio hau bete ezean, ordurarte emandako dirulaguntza galduko du, eta Udalak geroago eman ditzakeen laguntzak galduko ditu. Halaber, santzioa jarriko zaio, aldaketa izan eta udalari jakinarazi ez zaionetik eman zaion laguntzaren kopuruaren berdinekoa.

10. Artikulua.

Krisian dauden enpresen kasuei buruz, haien langileak, langabe karnetaren jabe ez bada ere, araudi honetan ikusitakoak moduko egoeran badaude, udal tasak ordaintzea atzeratzeko eskatu ahal izango dute, langileen behin betiko egoera zehaztu arte.

Atzerapena onartzeko, araudi honetan agertzen diren baldintza guztiak bete beharko dira.

11. Artikulua.

Araudi hau 1999ko urtarrilaren 1ean hasiko da arautzen, eta indarrean jarraituko du Udalak aldatzea erabaki arte.

ARRASATEKO UDALEKO ALKATE-UDALBURUA

Izen-abizenak:

Adinez nagusia NA zk.:

Helbidea:

Herria:

ADIERAZTEN DUT:

Nire dirusarrera ekonomikoez bizi zen familia unitatea (e)koa dela (1).

Subsidioaren nire dirusarrerak dira: pezeta hilean.

Familia unitatearen gainerako kideek (2) lan errenten truke dirusarrera ez ekonomikoak jasotzen dituzte, pezeta hilean.

| IZENA | NA zk. | ADEITASUNA | DIRU SARRERAK |
|-------|--------|------------|---------------|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

Halaber, familia unitateak ez du beste ezein kontzeptuko dirusarrerarik. (3)

Eskabide honekin batera doaz adierazitakoa egia dela egiaztatzen duten agiriak.

Azaldutako guztiagatik:

ESKATZEN DUT:

Idatzi hau onartzeko eta dagozkion tramiteak egin eta gero, dagokion dirulaguntza emateko, udal tasak ordaintzeko zenbatekoa.

Arrasaten, 2002koaren(e)an

ESKATZAILEA:

(1) Zehaztu zenbat diren zure kontura dauden familia unitateko kideak.

(2) Ezabatu ez dagokiona.

(3) Beste diru sarrerarik izanez gero, azaldu behar duzu nondik jasotzen duzun eta hilean zenbat.

ZIURTAGIRIA

Izen-abizenak:
Adinez nagusia Jaioterria:
Helbidea:
Telefonoa:
NA zk.:

ZIURTATZEN DUT:

Balio hauek dauzkat:

- Balio higigarriak:

-
-
-
-

- Balio higiezinak:

-
-
-
-

Eta hala jasota geratzeko eta dagozkion eraginak sortzeko, adierazpen hau sinatzen dut.

Arrasaten, 2002koaren(e)an

Izp.: